

“Gure gizartea solidarioa, konprometitua eta antolatua da, eta etorkizun hobea eraiki nahi du, kaletik eta erakundeekin batera”

Sareen Sareak Euskadiko hirugarren sektore sozialeko erakundeak biltzen ditu. Sarearen helburua gizarte kohesionatu, inklusibo, solidario eta parte-hartzailea sustatzea da, pertsona guztien eskubideak errespetatuko dituen. Horretarako, gizarte-sektore sendo eta aitortu bat egituratzea ahalbidetzen du, bai eta politika publikoetan eragiteko gaitasun handiagoa ere.



Sareen Sarea

“Garapenerako GKEek munduko gehiengo baten errealitate eta beharretara hurbiltzen gaituzte, desperekotasunen ondorioz geruzatuta bizi den gehiengo baten errealitate eta beharretara, hain zuzen, eta Euskadiko gizarteak pertsona eta komunitate horiekiko sentitzen duen konpromisoa bideratzen dute. Euskadiko Garapenerako GKEen Koordinakundeak Sareen Sarearen baliok indartzen ditu: elkartasuna, eraldaketa, lankidetzeta, aniztasuna, demokrazia eta independentzia. Garai zailak datoz: guk defendatzen ditugun balioen aurkako aldaketa globalak gertatzen ari dira. Bestelako mundu bat eraiki daitekeela uste dugun pertsona eta erakundeok, utopia hori defendatzen dugunok, optimismoz egin behar diogu aurre etorkizunari, baina errealitatekin aldentu gabe. Formulak topatu behar ditugu pertsonen beharrei erantzuteko, eta horretarako, ezinbestekoa da gure sektoreko errealitateen artean loturak estutzea, gizarteari balioa emateko eta politiketan eragiteko”.

Mikel Barturen

Sareen Sarea erakundeko koordinatzailea